

DIRU SARRERAK

Diru sarrerak bezeroetatik lortzen ditugu eta lokala erabiltzearen truke aurrez ezarritako diru kopurua ordaintzen dute. Tasa desberdinak daude, eskatutako zerbitzu motara egokitutakoak, beraz, bezero bakoitzari esker lortzen ditugun etekinak desberdinak dira.

Astean zehar, lokala orduka alokatzen dugu (15€/ ordua) eta asteburuetan berriz, prezioak pixka bat igotzen dira (20€/ ordua). Gure helburua gastu finko guztiak ondo ordaintzea da.

Hasieran batean, bazkideok 25.000€ inguruko kapitala jarri genuen, bakoitzak 5.000€, obrak eta bestelako gastuei (tabernako edariak, web-orria...) aurre egiteko. Horrez gain, gazte ekintzaileak izateagatik, posible ikusten dugu erakunde publikoen laguntza jasotzea.